



**EKINTZAIETZA GENERO
IKUSPEGIAREKIN:
JARDUNBIDE EGOKIAK**

2016

—
Edukien koordinazioa: Bilbao Metropoli 30
Erredakzioa eta testuen azterketa: EmakumeEkin
Maketazioa: Estudio Marina Goñi

Dokumentua egiteko ekarpenak
egin dituzten entitateak:

AED
Bilbao Ekintza
BasquePro Emakume Profesionala-Bilbao Metropoli-30
Cámara Comercio Bilbao
Dema
EmakumeEkin
Inguralde
Leioako Behargintza
Meatzaldeko Behargintza
Seed Capital Bizkaia
Universidad de Deusto-Deustuko Unibertsitatea

Sarrera 4


Bideoak 7

Ekintzailetzan generoen artean dagoen tartea murriztea 8

Ekintzaileen beharrak eta ekitean ahalduntzea errazteko gomendioak 13

Erakundeek Bizkaian egindako jardunbide egokiak: aukera berdintasunerako ekintzailetza 19

Check list: Testa gainditzen duzu? 31



SARRERA

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak emakumeek eta gizonek aukera berak dituzten ekintzailetza bultzatzeko aurkeztu du jardunbide egokien gidaliburu hau. Helburua bikoitza da:

1

Enpresak sustatzen dituzten Bizkaiko erakundeek orain arte arlo honetan egindako lanaren berri ematea

2

Enpresa-egitura bultzatzeko lan egiten duten beste erakunde batzuk erakartzea, emakumeak buru diren enpresak garatzen laguntzen duten jarduerak jar ditzaten motibatuzko. Horretarako, neurri jakin eta lorgarriak ezarri beharko dira, emakumezko ekintzaileen eta enpresaburuen ahalduntzea errazteko. Horrela, emakumeek eta gizonek aukera berdinak dituzten gizarte bat lortzeko aldaketak eragingo dira

–

Bizkaiko Foru Aldundia enpresak sortzen laguntzen duten erakundeetan genero-ikuspe-gia kontuan hartzearen alde egiten ari da, zenbait ekintzen bidez.


Erakunde horietan lan egiten duten pertsonak sentzibilizazio-prozesu bat hasi dute Andrekintzailea programaren barruan, 2014. urtean hasita, beraien jarduera-esparruan berdinta-sunezko politikak aplikatu ahal izateko.

Horretarako, esperientziak azaldu dizkiote elkarri, bestearen esperientzietan oinarrituz egiteko moduak aldatzeko. Helburua beraien eguneroko lanean genero-eragin positiboa sortzea da.

–

Gidaliburu hau erakunde horien arteko lankidetzaren emaitza da. Orain arte egindako bidean, egiten ari direnaren balioa nabarmendu dute, eta horrez gain, beraien jarduteko moduak berritu dituzte, enpresak sor eta finka daitezen sustatzeko, emakumeei eta gizonei ekiteko eta arrakasta izateko aukera berak eskainiz.

Hau da lurraldeko garapena lortzeko bidea, non emakumeak buru diren enpresak irudizko taldeetan sartuta dauden, eta, gainera, kultura ekintzailea egiteko modu berriak ere ikusten diren.



***EKINTZAILETZAN
GENEROEN ARTEAN
DAGOEN TARTEA
MURRIZTEA***

—

Ekintzailetzaren arloan lan egiten duten zenbait erakundek **“genero-ga-pa”** handiagoa den arloak aurkitu dituzte, eta, beraz, emakume ekintzaile eta enpresaburuekin lan egitean, ekintzailetzaren etapetan garrantzitsua da kontuan hartzea.

—



Emakumeei emandako genero-rolak: emakumeen sozializazioak konformismorako, ez ekintzailtzarako, mendekotasunerako, besteren beharrak eta nahiak asetzeko...ekiterako orduan beraien buruarengan duten -eta beren ingurunetik eskatzen den- konfiantzan eragina du.



Gizarte-inguruaren -lagunak, familia, bankuak, komunikabideak-
laguntza falta ekitean: emakumeen aintzatespen eta konfiantza falta horrek, beraien buruarekiko duten iritzian eragiten du, ekimen-gaitasunari, lidergoari eta laneko autoestimuari dago-kienez.



Lan- eta familia-bizitza bateratzea: emakume askorentzat erronka erantsi bat da, modu egokian egin behar diotelako aurre, nahi duten oreka egokia lortzeko (lana-bizitza pertsonala -familia bizitza). Orekak errealitatera eta emakume ekintzaile bakoitzaren unera egokituta egon behar du.



Ohiko enpresa-eredua oinarritzat hartuta: ezkutatu egiten dira zuzendaritza eta lidergo estilo desberdinak; baita merkataritza-ekintza egiteko modu desberdinak ere. Horrela, emakume asko ez datoz bat hedabideetan erakutsitako ereduekin.



Emakumeek egindako ekintzailtza gutxitan hartzen da kontuan: komunikabideetan estereotipoak betikotzearen ondorioz, emakumeen ekintzailtza oso gutxitan ikusten da, batik bat egiteko modu berriak erakusten dituztenetan. Gehienbat gizonezkoen ekintzailtza-eredua kontuan hartzen da, eta horrek, emakumezko ekintzaile askok ez duten emakumeen erreferentziarik, sozialki iraunkorrak diren beste arrakasta-eredu batzuen eredu eta motibazio gisa erabiltzeko.

Alderdi horiek guztiek ez dute laguntzen emakumeek beraien burua enpresaburu gisa izaten, eta autokonfiantzan eragin dezakete erabakiak hartzen dituztenean.

Horren aurrean, **emakumeek ahal-duntze-prozesuak egiten dituztenean eta besteak beste ekiteko gaitasuna, lidergoa, laneko autoestimua** -orain jasoko ditugun beste kontu batzuez gain- lantzen dituztenean, **beren iritzian konfiantza handiagoa dute erabakiak hartzeko, eta baita ekiteko gaitasunetan ere.**


Horren ondorioz, beraien lan-posizionamendua hobetzen da eta enpresak indartzen dira.

–

Aipatutako bost puntu horiek (generoaren aldean eragiten dutenak) emakumezko ekintzaileek hautesmandako beharretan eragina dute.

Orain, behar horiek zeintzuk diren zehaztuko ditugu, eta ekintzailetzan laguntzen duten eragileek aurre egiteko moduak proposatzen dira. Halaber, emakume ekintzaileek horien kontra egiteko tresnak ere proposatzen dira.

–



EKINTZAILEEN
BEHARRAK ETA ***EKITEAN***
AHALDUNTZEA ***ERRAZ-***
TEKO ***GOMENDIOAK***

Orain zehaztuko diren puntuak emakume ekin-tzaileek hautemandako beharrak dira. Ekosistema ekintzailea sortzeko eta indartzeko lan egiten duten erakundeek arlo horiei bereziki erreparatu behar diete, emakume horien ahalduntzea bideratzeko prestakuntza eta tresnak emanez.

Enpresa bat abian jartzeko eta finkatzeko prozesua ikasketa, gogoeta eta etengabeko ekintza ziklo bat denez, jasotzen diren faseak ez dira prozesuaren hasiera eta amaiera; enpresaren DNA-tzat hartzen dira: helize bikoitzeko sistema bat, non enpresak bizi dituen une jakinak eta une horietarako beharrezkoak diren gaitasunak lotzen diren. Prozesu hori etengabea da eta enpresa-bizitzaren faseetan zehar errepikatzen da.



EKINTZAIETZAREN FASEA: ENPRESA NIRE NEURRIRA DISEINATZEN

EKINTZAILEA:
ZER BEHAR DUT

LAGUNTZEKO AGENTEA:
NOLA LAGUN
DIEZADAKEZU

LAGUNTZEKO AGENTEA:
ZER PROPOSATU
DEZAKEZU NIK EGITEKO

Nire negozio-eredua
sortzea, hala maila
kontzeptuarekin nola
emozionalean

Esaten dudana epaitu gabe
entzunez, konfiantza eta
konfidentziasuneko giroa
sortuz

Nire proiektuei buruz
ezer ezkutatu gabe hitz
egitea

Ni naizenarekin, nik
nahi dudanarekin eta
nik behar dudanarekin
konektatzea

Galdera irekiak eginez,
aukera izan dezadan nire
barrizaren gainean
hausnartzeko, bilatzeko
non sentituko naiz erosoan

Marraskien bidez, idatziz
eta hitz eginez azter-
tzea «zer egingo nukeen
beldurrik ez banu»

Nire ametsen neurrirako
anbizioak izatea, ez nire
beldurren neurrirakoak

Beldurrei aurre egiten la-
gunduz eta beldurrok gain-
ditzeko motibatuz. Antzeko
helburuak lortu dituzten
beste emakume batzuen
adibideak erakutsiz

Ausartzea niretzat onena
zer den amestera, pen-
tsatzea «arrakasta zer
den niretzat»

Ezetz esaten ikastea

Tresna emanez asertibi-
taterako, adibideen bidez
ikusaraziz EZ esatea lehen-
tasunak ezartzea dela

Konfiantza izatea nire
irizpidean

▶ EKINTZAILETZAREN FASEA: ENPRESA NIRE NEURRIRA DISEINATZEN

EKINTZAILEA:
ZER BEHAR DUT

LAGUNTZEKO AGENTEA:
NOLA LAGUN
DIEZADAKEZU

LAGUNTZEKO AGENTEA:
ZER PROPOSATU
DEZAKEZU NIK EGITEKO

Erantzutea —ohartzea noiz arduratzen naizen soilik beste pertsonen beharriaz erantzuteaz—

Galdera irekiak eginez, une jakin batean lehentasunak ezartzen laguntzeko

Gogoratu dezadala zein kasutan albo batera utzi behar izan dudana bene-tan nahi dudana, beste gauza batzuek arduratzearen. Nire beharriaz erantzutea

Epe luzearako ikuspegi estrategikoa hartzea, helburuak planifikatzea eta betetzea —auto-diziplina—

Alternatibak aztertzen lagunduz, neure erabakiak har ditzadan

Nire enpresaren etorkizunerako zer garapen nahi dudana pentsatzea eta agendan egunez egun zehaztea zer jarduerak lagun diezadaketan ikuspegi hori lortzen

Isolamendutik ateratzea eta sare profesio-nal berrietan sartzea

Interesgarriak izan litezkeen ekitaldien berri emanez, eta informazio hori eskura jarritz

Nire konfort-eremutik irte-narazten nauten ekitaldi estrategikoetara joatera ausartzea

Generoari lotutako arazo espezifikoek jabetzea

Harremanetan jarritz —elkarteen edo foroen bidez— beste emakume ekintzaile batzuekin

Informazioa jasotzea, jakiteko zer diren genero-estereotipoak eta jakiteko nola gaindi ditzakedan

▶ **EKINTZAILETZAREN FASEA:** ENPRESA NIRE NEURRIRA DISEINATZEN

EKINTZAILEA:
ZER BEHAR DUT

LAGUNTZEKO AGENTEA:
NOLA LAGUN
DIEZADAKEZU

LAGUNTZEKO AGENTEA:
ZER PROPOSATU
DEZAKEZU NIK EGITEKO

Porrot egiteko beldurra
galtzea

Erreferente diren hurbileko
beste emakume batzuen
adibideak emanez, ni moti-
batzearren

Ideietatik ekinera pasa-
tzea –ideia inperfektu
batek gehiago balio du
egin gabeko perfektu
batek baino–

▶ **EKINTZAILETZAREN FASEA:** NIRE ENPRESA JASANGARRI BIHURTZEA ZENTZU GUZTIETAN

Jakitea zer behar du-
dan nire enpresaren-
tzat, zer laguntza
behar dutan

Nik nahi dutan bizitza
-motarako onena den
enpresa- mota diseinatzen
lagunduz

Nire beharrizanak
erdigunean jartzea

Nire kontziliazio-puntu
egokia aurkitzea:
bizitza profesionala
eta familiakoa zein
pertsonala asetzeko

Ikuspuntuak eta alternatibak
eskainiz, kontziliatzerakoan
nire neurrirako erabakiak har
ditzadan

Familia badaukat, eran-
tzunkidetasuna ne-
goziaztea etxean eta
nire lanaren balioa
ikusaraztea

Sentitzea badudala
«eskubidea dirua
irabazteko eskubidea»

Nire enpresa jasangarri
bilakatzeko formulak
pentsatzen lagunduz

Finantza-arloan izan
ditzakedan automugak
edo sinesmenak detek-
tatzea-behatzea

EKINTZAILETZAREN FASEA: NIRE ENPRESA JASANGARRI BIHURTZEA ZENTZU GUZTIETAN

EKINTZAILEA:
ZER BEHAR DUT

LAGUNTZEKO AGENTEA:
NOLA LAGUN
DIEZADAKEZU

LAGUNTZEKO AGENTEA:
ZER PROPOSATU
DEZAKEZU NIK EGITEKO

Kultura finantzarioa izatea eta finantzaketa-iturriak ezagutzea. Informazioa biltzea, gero erabaki ahal izateko

Informazio erabilgarria modu zuzenean emanez eta ulertzeko moduko hizkuntzan azalduz, informazio hori niretzat arrotza denean. Nire zalantzak entzunez

Independentzia eman-go didaten finantzaketa-
-aukera berrietan pentsatzera ausartzea

Prezio bat jartzea orduari, ondo bizi ahal izateko eta, gainera, sinestea prezio hori ordainduko didatela

Adibideen bidez ikusaraziz prezio baxua jartzea haute-
mandako kalitatearen arerio dela. Gurpil zoro bat da nire balio erantsiarekin kokatzeko ditudan aukerak muga ditzakeena

Burutik kentzea «merke jarritz gero gehiago erosiko didate» bezalako sinesmenak

EKINTZAILETZAREN FASEA: NIRE ENPRESA IKUSTARAZI

Neure burua ikusaraztea, besteen aurrean jartzeko beldurra galtzea


Tresnak emanez (formazioa, ikuspuntu berriak) beldur hori kudeatzeko

Nire enpresaren alderdi ona erakustera ausartzea, nire enpresa jakitera ematea

Beldurra galtzea ni neu nire komertziala izateko, aurre egitea negoziazio eta eragozpenei

Formazioa eskainiz ikus dezadan alderdi komertziala ere atsegina izan daitekeela eta horretarako ere trebeziak ditudala

Ekimena hartzea: ez gehiago pentsatzea nola egingo dudan, baizik eta egitea, deitzea, mezu elektronikoko hori bidaltzea..., eginez ikastea



***ERAKUNDEEK BIZKAIAN
EGINDAKO JARDUNBIDE***

EGOKIAK:

***AUKERA BERDINTASUNE-
RAKO EKINTZAILTZA***

Egindako ekintza

Genero-ikuspegia duten adierazleak definitu dira, hau da, pertsoneri buruzko adierazleak bereizita neurtzen dira gizon eta emakumeen artean.

Horrela, akziodunen artean dauden emakumeen ehunekoa, administrazio-kontseiluan dauden eta beste-lakoak jakiten dira, emakumeek Seed Capital-en duten gaur egungo egoera ezagutzeko.

Neurriak hartu aurretik datuak lortzen dira, eta esku-ratzen den informazioaren arabera jokatzeko da. Helburua da oinarritutako informazioan ekintza zehatzak egitea emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak murrizteko.

Seed Capital egiten ari den gaietako bat da berdintasunaren arloan lan egiten duten erakundeei informazioa ematea, finantzazio-tresna horren berri emateko, ekintzaileen eskura dagoen negozioa hazten laguntzen duen kapitala hornitzeko modu bat gisa.

Zergatik da interesgarria

Genero eragin positiboa

Edozein testuingurutan errealitatea ezagutzeko neurtu behar da. Ekintzailertzan dagoen aldea murrizteko ezinbestekoa da informaziorako sarbidearen datuak izatea eta emakume eta gizonen ekintzailertza-prozesuetan parte hartzea. Horrela, zifra objektiboak erabiliz, dagoen desberdintasuna erakusten da, errealitatearen azterketa kritikoa egiteko eta aurrerapausoak emateko. Informazio horrek beste galdera batzuk eragiten ditu, eta erantzun behar zaien behar zehatzak islatzen ditu. Emakumeen esperientziak ezagutzeak, zer zailtasun izan dituzten jakiteak, ekintzailertza-proiektuetan parte hartzea sustatzeko estrategiak ezartzen lagun dezake.

Genero-ikuspegiarekin aztertzea, datuak gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak kontuan hartuz aztertzea da, informazioa ikusteari eta partaidetza-indizeetan dauden baliabideak erabiltzeari dagokienez. Ikuspegi hori aztertzean genero-aldagaia kontuan hartzen da. Beraz, tradizioz sexu bati edo besteari emandako eginkizunek eragindako desberdintasunak ezagut daitezke.

Genero-ikuspegia barnean eta kanpoan zeharkakoa egitea

Leioako Behargintza

Egindako ekintzak

Zeharkako bihurtu dira genero-ikuspegian hartutako neurriak esparru guztietan, bai barnean, Behargintzarako, bai ekintzaileen artean desberdintasuna murrizteko ekintza zehatzak txertatzeko.

Komunikazio inklusiboa. Behargintzaren edozein agiritan hizkuntzaren erabilera zaintzen da. Edozein agiri edo argitalpen idaztean hizkuntza inklusiboa erabiltzen da. Irudiak: Behargintzako liburuxka, agiri eta argitalpen guztien irudiak aldeztu aurretik aztertzen dira, material grafikoa badute, irudiak inklusiboak izan daitezten.

Behargintzako langileen **barneko prestakuntza** genero-berdintasuneko gaietan.

Udaleko langileak hautatzeko epaimahaiak. Gutxienez, emakume bat egongo da.

Aurreikusita dago Behargintzak udaleko Berdintasun Planean parte-hartze aktiboa izatea.

Berdintasunari buruzko ikastaroak. Leioako Behargintzak antolatutako lanerako prestakuntza-ikastaro guztietan berdintasun-modulu bat barne hartu da.

Parekotasuna proiektuak ikustean. Ekintzailetza-ikastaroen amaieran bi esperientzia ekintzaile azaltzen dira. Horietako bat, gutxienez, emakume baten esperientzia izango da.

Zergatik da interesgarria

Genero eragin positiboa

Genero-ikuspegia lantzen da, bai barruan -langileak prestatzen, barneko alderdiak aldatzen- bai kanpoan -zenbait neurri erreferenteak ezagutzera emateko-, genero-ikuspegia emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak murrizten laguntzen duen zeharkako gauza bat gisa hartuz, erakundeko egitura guztietan.

Ekintzaileentzako ekintzen kasuan, jarduera horiek, enpresa-ekosistema integratzaileago bat sortzen laguntzen dute, eta emakumeak buru diren ekintzailetza nabarmentzen da. Horrek, beste emakume batzuek proiektuak abian jartzea bultzatzen du, aurkeztutako erreferenteekin bat egiten dutelako.

Genero-ikuspegia txertatzeko neurriak

Inguralde

Egindako ekintzak

Genero-ikuspegia jardueren ordutegian eta erakundearen kanpoko komunikazioan ikusten da.

Ekitaldiak eta prestakuntza egiteko aurrez finkatutako ordutegiak bizitza pertsonala eta lan-bizitza bateratzeko egokitu dira.

Komunikazio inklusiboa: Material korporatiboak berrikusi dira: kartelak, liburuxkak, prestakuntza-materiala... erabilitako hizkuntza inklusiboa izan dadin. Bestalde, Inguraldeko gizarte-sareak emakumeen ekintzailetzan arrakastatsuak izan diren erreferenteak erakusten dituzten jarduerak zabaltzeko erabiltzen dira.

Zergatik da interesgarria

Genero eragin positiboa

Ekintza hauen bidez, pertsona guztiak prestakuntza-eskaintzan sartzen laguntzen da, ardurapenak adingabeak dituzten ala ez kontuan hartu gabe.

Bestalde, hizkuntza inklusiboa sartuz eta emakumeak buru diren enpresen adibideak jakinaraziz, ekintzaileen berri izaten laguntzen da eta emakumeentzat baliokoak diren erreferentea sortzea sustatzen da.

Desberdintasunak murrizteko neurriak aplikatzen dituzten zenbait programa

Dema

Egindako ekintzak

Enpresari programa, Lanbide Heziketako ikasleentzako programa da.

Hauk dira autoenpleguari begira sentsibilizazio-tailerretan egiten diren ekintzetako batzuk, berdintasuneko tratua lortzeko helburuarekin:

- Tailerlean nahiz idaztean hizkuntza inklusiboa erabiltzen da.
- Programara bere esperientzia azaltzera joaten diren ekintzaileak hautatzean, parekotasuna egotea kontuan hartzen da.
- Emakume kopurua gizon kopurua baino handiagoa den zikloetan, proposatutako adibideak emakumeak buru diren proiektuak dira nagusiki.
- Enpresa-proiektuen lehiaketa bat egiten da, eta parekotasuna saritzea kontuan hartzen da.

Anezka programa Langabezian dauden pertsonentzako laneratze programak

Emakumeenak bakarrik diren programak egin dira, emakumeen langabezia-tasa gizonena baino handiagoa den eskualdeetan antolatu direlako. Gainerakotan, %50 emakume eta % 50 gizon hautatzen dira.

Besteren konturako enplegua eta ekintzailtza sustatzeko programak dira. Deman, sormenari, ideiak sortzeari, enpresa bat abian jartzeari eta finantza-zio-bilaketari buruzko prestakuntza ematen da. Tailer horietan erakusten diren adibideak generoarekin lotutako estereotipoak apurtzen saiatzen dira.

“Elkarrekin ekiten dugu”, lankidetzaz Colaborabora gizarte-ekimeneko kooperatibarekin

Proiektuaren helburua da emakumeen ekintzailtza proiektu kooperatiboak sustatzea eta ezagutzera ematea. Horrez gain, Demak prestakuntza eta aholkularitza ematen die enpresa-proiektu batekin ekitea erabakitzen pertsonari.

Zergatik da interesgarria

Genero eragin positiboa

Programen helburua emakumeak buru diren ekintzailtza bultzatzea da: ekintzaileen ikuspegi desberdinak ematen dira, eta beraien proiektuak zuzenean azaltzea eskatzen zaie. Horrez gain, prestakuntzetan ematen diren adibideak emakume ekintzaileenak dira nagusiki. Horri esker, emakumeak bat datoz, eta gizonen estereotipoak kontuan hartzen ez dituzten adibideak ezagutzen dituzte.

Bestalde, desberdintasunak murrizten dira prestakuntzarako sarbidean eta ekintzailtza-ekintzen aintzatespenean, batetik, berdintasuneko hautaketa-prozesuak, eta bestetik, sarien esleipena sustatuz.

Aholkularitza zuzentzeko gaitasunak edo coaching garatzeko

Bilbao Ekintza

Egindako ekintzak

Hamar orduko banakako zerbitzua eskaintzen zaie emakumeei eta gizonei. Landuko diren alderdiak ezagutzeko egoera aztertzen da. Sustatzaileei eza-gutzak eta laguntza ematen dizkie lidergo gaitasunak garatzeko eta ekintzailtza-prozesuan aurre egiteko eta arrakasta izateko.

Coaching zerbitzuaren aurretik, 2000. urtetik, “Ekintzailtza eta emakumea tailerra” egiten zen, ekiteko gaitasunak eta jarrerak garatzeko helburuarekin, autoenplegu-proiektuak egin zitzaizten. Ikastaro horretan, genero-eginkizunek eragindako eragozpenak (arriskuarekiko beldurra kudeatzea, bakardade-sentimendua kudeatzea, ezetza ematen ikastea, autoestimua, arriskuak hartzeko gaitasuna, lidergoa...) gaintzeko gaitasun pertsonalak eta kudeaketa-gaitasunak lan-tzen ziren. Gaitasun sortzaileak garatzeko dinamikak eskaintzen ziren, negozio-idea berriak bilatzeko eta finkatzeko. Tailerraren amaieran ekintza-plan bat egiten zen, eta ekintzaileak abian jarri behar zuen. Azken alderdi hori sustatzeko, beharrezkotzat jo genuen banakako coaching saio horiek eskaintzea.

Zergatik da interesgarria

Genero eragin positiboa

Azken bi urteetan, zerbitzu hori jaso duten pertsonen % 70a beraien enpresak sortzeko prozesuan dauden emakumeak izan dira.

Programa eraginkortzat hartzen da zalantzak argitzeko eta ekintzailtza inguruko mitoak gezurtatzeko. Horren ondorioz, aholkatutako pertsona batzuek hasierako ideia uztea erabaki dute. Hori, programaren elementu positibotzat ere hartzen da.

Coachinga gaitasunak eta trebetasunak indartzeko denez, eta helburuak ezartzen eta ekintza-planak finkatzen laguntzen duenez, ekintzaileentzat interesgarria izan daiteke. Batetik, beraien beharrak erdian jartzen ikasteko; bestetik, autoestimua hobetzeko, ekiteko gaitasuna, eta arriskuak gain hartzeko.

Ekintzaileentzako berariazko programa

Cámara de Comercio de Bilbao

Egindako ekintzak

Bilboko Merkataritza Ganberak Emakumeentzako Enpresa Laguntza Programan parte hartzen du, eta bere helburua emakumeak autoenpleguaren eta enpresa-jardueraren aurrean sentikor bihurtzea da, emakumeak buru diren enpresak sortzeko eta finkatzeko tresna eraginkorra izan dadin. Europako Gizarte Funtsaren eta Berdintasun Ministerioaren finantza-laguntza du.

Ekiteko asmoa duten emakumeen ekimenei laguntzeko diseinatuta dago, beren proiektuaren edozein fasetan, enpresa-idea hastean nahiz abian jartzean eta finkatzean, modernizatzean edo handitzean.

Besteak beste, **informazio erabilgarria ematen da enpresa-sareei**, argitalpen espezializatuei edo autoenplegu-aukerei buruz. Merkatu-azterketetan eta barneko eta kanpoko merkataritzan orientazioa ematen da; enpresa-kudeaketari eta finantza-tresnei aplikatutako teknologietan aholkatzen da.

Proiektu honen barruan, emakumeentzako bakarrik zen jardunaldi bat egin zen, mikroenpresak sortzeari eta kudeatzeari buruz.

Zergatik da interesgarria

Genero eragin positiboa

Programa honetan parte hartzen duten emakumeek, prestakuntzaz gain, finantzazioa lortzeko erraztasunak ere lortzen dituzte, finantzazioa jasotzeko eskaera bideratzen zaielako. Ekin nahi duten Europako emakumeek ekiteko aurkitzen dituzten eragozpen nagusietako bat finantzazioa lortzeko zailtasuna da, Europako Parlamentuko Emakumearen Eskubideen eta Genero Berdintasunaren Batzordearen txostenen arabera.

Horrez gain, nazioartekotzea bezalako gaietan laguntza jasotzen badute, negozio horiek, nahi badute, kanpora ateratzeko aukera dute.

Bestalde, ematen den informazioa argia eta praktikoa izateak konfiantza sortzen du emakumeen enpresa-proiektuek arrakasta lortzeko aukeretan, normalean informazio hori zaila delako beraientzat lortzea.

Ekintzaileen arrakasta-ereduak ikustea

Deusto Entrepreneurship Centre

Egindako ekintzak

Emakume ekintzaileen adibideak ikusiz, unibertsitatean dauden emakumeei ekin dezaten animatzeko helburuarekin, Ekintzaile Astearen barruan “**Be The Change**” jardunaldia egin zen. Jardunaldi horretan, zenbait sektoretako ekintzaile arrakastatsuek beraien esperientzia azaldu zuten. Horrez gain, ekiteko beharrezkoak diren jarrerai buruz, zehazki emakumeen ekintzaileari buruz, gogoeta egiteko oinarri gisa balio izan zuen.

Horretarako, mahai-inguru bat antolatu zen emakume ezagunekin, hala nola:

/ **Catalina Hoffmann**, Catalina Hoffmann Taldearen sortzailea, zahartze aktiborako zenbait enpresa barne hartzen dituena.

/ **Antonella Broglia**, publizitatean eta marketinean aditua.

/ **Marta Acilu**, Noray Bioinformatics enpresako sortzaileetako bat. Biozientzietarako softwarea garatzen du.

/ **Susana Zaballa**, ekintzailetzari laguntzeko EmakumeEkin elkartekoa, emakumeek zuzentzen dutena.

Julen Iturbe, Consultoría Artesana en Red SL enpresakoa. Azkenik honek, dibertsitateari, lan- eta familia-bizitzaren bateratzeari eta erakundeetan berdintasunak duen garrantziari buruzko gogoeta egin zuen.

Zergatik da interesgarria

Genero eragin positiboa

Mota honetako jardunaldien bidez, **liderrak diren emakumeen berri ematen da**. Horrela, unibertsitateko ikasleei oro har ekin duten eta arrakasta izan duten emakume erreferenteen hainbat adibide erakusten zaizkie.

Errealitate horiek ez dira behar bezala erakusten gure gizartean, baina benetako erreferente gisa balio dute, eta unibertsitateko emakumezko ikasleentzat iparrorratz egiteko beste modu batzuen adibideak, erreferente positibo gisa balio dezaketenak. **Ekintzailetzarekin lotutako ohiko estereotipoak apurtzen laguntzen du.**

Horrez gain, ekiteko eta ekin aurreko prozesuetan dauden emakume asko biltzen dira, beraz, esperientziak partekatzeko emakumeak zuzenean ezagut ditzakete, emakume ekintzaileen egitura eta euren arteko laguntzak indartuz.

Ekintzailtzarako prestakuntzetan emakume erreferenteak egotea

Meatzaldeako Behargintza

Egindako ekintzak

Estereotipoak kentzeko eta ekintzailtzarako prestakuntza-ikastaroetako pate-hartzaileei ekintzaileen adibideak emateko, zenbait neurri hartu dira:

- Ikastaroak ematen dituzten langileak beraien aholkularitza-enpresak dituzten emakumeak dira, beraz, enpresaburuak dira.

- Ekiten izandako esperientzia azalduko duten pertsona guztiak emakumeak dira.

-Giro atsegina sortzen da, ekiteko bidean dauden emakumeen konfiantza eta ahalduntzea errazteko, emakumeen arteko elkarrizketa sustatzen delako, konfiantza faltarengatik sortutako hesiak gaindituz, eta bateratze-lana sustatzen delako.

Zergatik da interesgarria

Genero eragin positiboa

Prestakuntzetarako emakumeak kontratatu dira eta beraien ekintzailtzako ikuspegia ematen dute.

Adibide gisa ere balio dute.

Bestalde, beraien ekintzailtzaren adibideak erakutsiko dituztenak emakumeak izateak, **ekiteko prozesuan dauden emakumeei aurrera jarraitzen eta indartzen laguntzen die**, baliozko eta benetako adibideak ikusten dituztelako, identifikatuta sentitzeko eta nahiak finantzeko. Beraz, emakumeentzat hain beharrezkoak diren baliozko erreferenteak sortzen laguntzen du.

Horrez gain, konfiantzazko giroak emakumeek parte hartzea eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen dira. Giro horrek **ideiak azaltzen eta beldurrak eta emakumeek ekitean dituzten beste arazo batzuk agertzen laguntzen du**. Horrek guztiak partekatutako irtenbideak bilatzen, jarduteko beste modu batzuk sortzen eta konfiantzan eta elkarrekiko errespetuan oinarritutako laguntza-sareak sortzen laguntzen du.

Ekintza positiboko mentoring programa bat

Bilbao Ekintza

Egindako ekintzak

Mentoring programa sortu zen ekintzaileek informazio garrantzitsua eta beraien negozioa sustatzeko eta indartzeko enpresa-kontaktuak ikusi behar zituztelako.

Gaur egun, ekiten duten emakumeentzat nahiz gizonentzat zuzenduta dago programa, hala ere, aholku emandako pertsonen % 70 emakumeak dira (2016).

Mentoring egiten duen pertsona negozioen munduan esperientzia handia duten pertsona bat da, ekiten laguntzen duena, bideak erakusten eta laguntzen duena, aholku emandako pertsonari bere esperientzia, gaitasunak, ezagutzak eta kontaktuak partekatuz, bai negozioen munduan bai ekonomia eta gizarte munduan.

Zergatik da interesgarria

Genero eragin positiboa

Sinergia emankorrek eta konfiantzazko harreman egonkor eta iraunkorrek sortzen laguntzen duelako. Zenbait kasutan harreman hori programa amaitu ostean ere luzatu da, eta horrek eragin positiboa izan du bai aholkuak jasotako pertsonarengan bai aholkuak emandako pertsonarengan.

Emakume parte-hartzaileen proportzio handia (% 70) kontuan hartuz, interesgarria da, enpresa-sarera sartzen laguntzen duten kontaktuak sortzeko beharrak asetzen dituen zerbitzu bat delako, eta ekintzaileek bereziki.

Ordu-tegi-aldaketa bateratzea errazten duten ikastaroetan

Meatzaldeako Behargintza

Egindako ekintzak

Teknikariak ekintzailletza ikastaroetara joateko proposatutako ordu-tegiak lan- eta familia-bizitza bateratzen zailtzen zuela kontura ziren.

Lehen: Ekintzailletzarako prestakuntzak bi aste-koak ziren, 9:00etatik 13:00etara. Horrenbestez, adingabeak ardurapean zituzten ekintzaile askok ezin zituzten eraman eta ekarri seme-alabak eskolara.

Hartutako neurria: Eguneroko ordu kopurua murriztea. Horrela, ikastaroak 9:30etik 12:30era ziren, eta ikaste-txetara sartzeko eta irteteko ordu-tegiarekin batera-garria zen. Ikastaroak 3 aste-koak izatera pasa ziren, bertaratzeko aukera handiagoa bermatzeko.

Teknikariek hauxe esan zuten: “badakigu emakumeek ez dutela beti ordu-tegi-erraztasuna prestakuntza jasotzerako orduan. Askotan, bere familiaren antolaketaz arduratzen dira, eta senideak zaintzeko lanei lehentasuna ematen diete beraien beharrei baino. Ordu-tegiak egokitzen saiatu gara, prestakuntzak jasotzeko eragozpena izan ez dadin. Horrela, ekiten duten gizonen lan- eta familia-bizitza batera dezakete eta ardura ere har dezakete. Horrenbestez, aukera-berdintasuna ematen da ekintzailletzako prestakuntza jasotzeko eta bateratzea errazten da”.

Zergatik da interesgarria

Genero eragin positiboa

Eragin ekonomiko esanguratsurik gabeko neurria da, hala ere, eragin positiboa du, ekintzaileek prestakuntzak eta horiek dituzten onurak jaso ditzaketelako: ezagutzak, sarea eta diru-laguntza jasotzeko aukera.

Horrez gain, gizonen ekintzaileek prestakuntza eta familia-bizitza batera ditzakete, familia barruan erantzukizunak ere har ditzaten.

Sarea sortze duten ekintzaileen topaketak

Bilbao Ekintza

Egindako ekintzak

Kafesarean: Emakume ekintzaileei bakarrik zuzendutako programak garatzen 11 urte baino gehiagoko esperientzia izanda, zenbait behar antzeman ziren. Gutxi gorabehera emakume horien % 75ek bakarrik ekiten zuten, beraz, bakartasun-sentsazioa zuten, eta zailtasun handiagoa zuten enpresen eguneroko arazoei aurre egiteko.

Lehendabizi, egokitzen joan zen enpresaburuak elkarrekin eta lankidetzan aritzeko leku bat sortzea, elkarri laguntzeko, eta beste enpresaburu batzuen esperientzian oinarrituz laguntzeko.

Enpresaburuen arteko topaketa horiek garatuz 4 urte baino gehiago emanda, harreman profesionalak sortzeko aukerak handitzeko helburuarekin, formatua aldatu zen.

Horrela, gaur egun, Kafesarean hilero elkartzeko lekua da, eta hor, Bilbao Ekintzaren laguntzarekin ekin dioten emakumeek eta gizonen informazioa, ezagutza eta esperientziak trukatzeko dituzte, networking sortzen dute eta asmo handiagoko proiektuei aurre egiteko sinergiak sortzen dituzte. Txostenak ere egiten dira.


Zergatik da interesgarria

Genero eragin positiboa

Aurreko formatua -emakumeak bakarrik laguntza emateko- interesgarria da ekintza positibo gisa, konfiantza eta sororitate giro bat ezartzeko eta emakume ekintzaileen berriazko beharrei emandako irtenbideak partekatzeko. Horrez gain, genero-eginkizunekin lotutako zailtasun gehiago gainditzeko puntu garrantzitsuak lantzen dira.

Gaur egungo Kafesarean-ek eragin positiboa du pertsona gehiagorekin enpresa-loturak ezartzeko aukeran. Ekintzaileek aurkitutako beharretako bat enpresa-sareetara sartzeko da. Ekintzaileen artean emakumezko erreferenteak sortzen laguntzen delako, izan ere, txostenen % 70a emakume enpresaburuek eta gai desberdinetan adituak diren profesionalak eman dituzte.

Halaber, Kafesarean-en hizlari gisa parte hartu duten enpresaburuek enpresa-munduan ezagunagoak izatea lortu dute, emandako gaietan aditutzat hartu dira eta enpresa-kudeaketan duten ikuspegia eta balioak igorri dituzte.



CHECK LIST

TESTA GAINDITZEN DUZU?

—
Zer egin dezakegu gure erakundearen ekintzailertan dagoen desberdintasuna murrizteko?

Galdera-zerrenda bat eguneroko ekintzetan -kanpainak, jardunaldiak, prestakuntza-ekintzak-berdintasunezko ekintzailertza batean laguntzen duten neurri zehatzak aplikatzen ari garela egiaztatzeko. Erakunde inklusiboak izan nahi badugu, horietan pentsatu behar dugu.

Erakundeak:



Hizkuntza inklusiboa erabiltzen dugu gure jakinarazpene-tan?: hitzak errealitatearen buruko irudi bat ekartzen du gogora, hizkuntza sexistak gizonezkoen nagusitasuna adierazten du. Aztertu nola egiten diren jakinarazpenak. Berrikusi testuak edo eskatu laguntza adituei. Gida hau kontsulta dezakezu. [Guia_DFB_lenguaje_perspectiva_genero.pdf](#)



Emakume enpresaburuen adibideak jartzen ditugu?

Adibide horiek modu orekatuan erakusten ditugu? Emakume enpresaburuek egiten duten lana aipatzen dugu? Estereotipoe-tatik eta genero-ereduetatik urruntzen diren adibideekin egiten dugu, arrakasta-ereduetan aniztasuna erakutsiz, eta gizonen nahiz emakumeen ekiteko moduak azalduz?



Karteletan eta beste euskarri batzuetan jartzen ditugun irudietan, emakumeak lidergoa, ausardia, ekimena, mugimendua, sareko lana bezalako balioen bidez adierazten dira? Edo emakume gehienak bat ez datozen eredu tradizionalak egiten jarraitzen dugu? Irudien erabilera ez-sexistaren BFA Gida kontsulta dezakezu.



Ikastaro edo ekitaldi baterako proposatzen duzun ordutegiak, lan- eta familia-bizitza bateratzea baldintzatzen du? Haurtzaindegi-zerbitzua eskaintzen dugu?



Erakundeak hitzaldi edo ekitaldi bat adituekin, epaimahai batekin edo txostenak dituzten jardunaldi batzuk antolatu baditu, emakume eta gizon kopurua orekatuta dago? Hau da, hizlari/epaimahaikideen % 40 gutxienez emakumeak dira?

Tutorizazioetan:



Emakumeak buru diren proiektuetan laguntzean, haien berriazko beharrak kontuan hartzen ari gara, generoak eragindako emozio-eragozpenei eta beldurrei dagokienez?

Eta zehazki:



Enpatiaz, epaitu gabe entzuten ari gara, konfiantza- eta konfidentzialtasun-giro bat sortuz?



Galdera irekiak egiten ari gara, epaitu gabe, bere beharretan, non egongo den erosoan pentsa dezala, eta une horretan lehenetsunak ezartzen lagunduz?



Beldurrei aurre egiten eta horiek gainditzeko laguntzen ari gara, antzeko helburuak egin dituzten beste emakume batzuen adibideak erakutsiz?



Nahi duen bizimodurako egokiena den enpresa mota diseinatzen laguntzen diogu?



Tresnak ematen ari gara asertibotasunerako, EZ esaten jakitea lehentasuna ematen jakitea dela esanez?



Bere erabakiak hartzeko aukerak aztertzen laguntzen diogu?



Berarentzat interesgarriak diren ekitaldiei buruzko informazioa ikusten laguntzen ari gara?



Beste emakume ekintzaile batzuekin harremanetan jartzen ari gara, erakunde edo foroen bidez?



Finantza-gaietara ez badago ohituta, informazio erabilgarria ematen diogu hizkuntza hurbilarekin, bere zalantzak entzunez?



Orduko prezio bat ezartzean, prezio baxu bat jasotako kalitatearen kontra doala azaltzen diogu, eta bere negozioaren kontra ere joan daitekeela? Prezioa jaisteko aukerak eskaintzen dizkiogu?



Tresnak, prestakuntza, ikuspegi berriak ematen dizkiogu merkataritza-lanari beldurra kentzeko? Gustatzen zaion modu batean egin dezakeela eta egiteko gaitasunak dituela esaten diogu?

